

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 3a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (6. or.).

II.1. 2016ko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (8. or.).

III. Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren beteazpenaren egoera-orria (9. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta bateratua (9. or.).

III.3. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (*) (10. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua (11. or.).

III.5. 2016ko ekonomia- eta ondare-emaizten kontu bateratua (12. or.).

IV. Iruzkina, oharrak eta gomendioak (13. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2016ko abenduaren 31n (13. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (16. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (18. or.).

IV.4. Langileak (19. or.).

IV.5. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (22. or.).

IV.6. Transferentzia arruntetatikoko gastuak eta kapital-transferentziatikoko gastuak (24. or.).

IV.7. Inbertsioak (25. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (26. or.).

IV.9. "Cintruénigo de Servicios Municipales SL" udal sozietatea (30. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (34. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (36. or.).

I. SARRERA


Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: data horretan amaitutako ekitaldiko aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaitza, diruzaintzako gerakina, balantzea eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Cintruenigoko Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Cintruenigoko udalerrak 3,73 km²-ko azalera du, eta 7.779 biztanle dauzka 2016ko urtarrilaren 1ean.

Ondorengo irudian erakusten dugu Udalaren eta haren menpeko erakundearen osaera:



Sektore horiek honako hauek osatzen dituzte:

- Administrazioaren Sektore Publikoa: Udalak berak eta bere erakunde autonomoak –San Francisco de Asís zahar-etxea– osatzen dute. 2013ko urriaren 1ean Udalaren Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, erabaki zuen ordura arte lanean jardundako beste erakunde autonomo bat, Uren Udal Batzarra, desgitea.

Honako taula honetan azaltzen dira ente horien 2016ko abenduaren 31ko aurrekontu-datuak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	5.541.229	5.974.838	64
Zahar-etxea	1.576.150	1.544.629	52
- Bateratzearen doitzeak	-58.000	-58.000	
Bateratua, guztira	7.059.379	7.461.467	116

2016an Udalak, guztira, 58.000 euroko ekarpena egin dio bere erakunde autonomoari. 2015eko kopuru bera da hori.

- Enpresen sektore publikoa: Udala "Cintruénigo de Servicios Municipales SL" sozietatearen erabateko jabea da. Enpresa hori 1991n sortu zen, 6.010 euroko kapitalarekin. Haren xede soziala enkargatzen dizkioten era guztietako zerbitzuak egitea da, bai eta obra eta konponketa txikiak egitea ere. Praktikan, haren jarduera nagusia udal instalazioak garbitzean eta atezaintza zerbitzuak ematean datza. Haren 2016ko gastuak eta diru-sarrerak hurrengo taulan ematen ditugunak dira:

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitza	Langileak, 2016-12-31n
Cintruénigo de Servicios Municipales SL	276.213	276.213	0	13 (*)

(*) 3k baizik ez dute lanaldi osoa

Enpresa hori ez dago Merkataritza Erregistroan inskribaturik; horrenbestez sozietate irregularen kategorian sartzen da. Haren helbide soziala Udalaren egoitza bera da.

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- a) Cintruénigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- b) Cascante, Fitero eta Cintruénigoko Ur Mankomunitatea, goi presioko ur-hornidurarako.
- c) Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinak etxebizitzak zaharberritzeko eta lazaretoko zerbitzuak ematen baititu.
- d) Ebroko Kirol Mankomunitatea, zeinak kirol zerbitzuak ematen baititu.

Mankomunitatutako zerbitzu horiek guztiek honako gastu hau ekarri diote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastua, 2016an
Cintruénigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	150.000
Cascante, Fitero eta Cintruénigoko Ur Mankomunitatea	432.097
Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea	10.164
Ebroko Kirol Mankomunitatea	13.000
Guztira	605.261

Horrenbestez, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua hurrengo taulan aipatzen direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Udal sozietatea
Ur-hornikuntza (goi presioan)			X		
Ur hornikuntza (behe presioan) eta estoldak	X				
Liburutegi publikoa	X				
Hilerria eta hileta-zerbitzuak	X				
Gizarte-etxea	X				
Gazteentzako zentroa	X				
Jubilatuen kluba	X				
0-3 urtekoentzako eskola-jantokia				X	
Udalaren kirol eremua eta igerilekuak				X	
Atezaintza	X				X
Musika eskola	X				
Haur eskola				X	
Kale garbiketa				X	
Instalazioen garbiketa	X				X
Berdintasunaren bulegoa	X				
Gizarte zerbitzuak			X		
Hondakinen bilketa eta tratamendua			X		
Zahar-etxea		X			

Udalaren aurrekontu orokorra 2016ko martxoaren 16an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak hasiera batez; behin betiko onespena, halaber, 2016ko martxoaren 16an eman zitzaion.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, 2016ko ekitaldiko kontu orokorraren inguruko gure iritzia azaltzen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoerari bateratu nagusien laburpen bat ematen dugu. Laugarrenean, zenbait ohar eta ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Landa-lana 2017ko azaroan egin zuen enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten ikuskatzearen eta zuzendaritzaren pean. Halaber, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan dugu.

Jarduketa honen emaitzak Cintruenigoko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua baten, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganik, alkateak txostenean eraginik ez duten alegazio batzuk aurkeztu ditu. Behin betiko txostenari gehitu zaizkio alegazio horiek.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Cintruenigoko Udaleko eta haren menpeko enteetako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Cintruenigoko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Udalaren kontu-hartzailera da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko irailaren 6an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea, gure fiskalizazioan oinarrituta, 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizatorako oinarriko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egingandako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritzia funtsa izateko.

II.1. 2016ko KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Udalaren ondasunen inbentarioa 2006koa da; 2017ko ekitaldian, berriz, hura gaurkotzeko lanak egin dira. Horrenbestez, ezin dugu egiaztatu Udalaren egoera-balantzeko ibilgetuari dagoen kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna; saldo hori 36,29 milioi eurokoa da 2016ko abenduaren 31n. Zahar-etxearen inbentarioa ez da gaurkotu. 2016ko abenduaren 31n, haren kontabilitate-balioa 3,97 eurokoa da.

- Ez dago jasota haren administratzaileek "Cintruénigo de Servicios Municipales SL" udal sozietatearen 2016ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituztenik.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginetatik ez bada, Udalaren kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Azpimarra egiteko paragrafoa

Arreta deitu nahi dugu honako hauei buruz:

- Udal sozietatea ez dago inskribaturik Merkataritza Erregistroan; ez du zuzendaritzarako eta kudeaketarako azpiegiturarik; udal zerbitzuak ematen ditu, eta haren ordainketak Udalaren beraren kontu korronteen bitartez egiten dira. Ganbera honen ustez, Udalak urgentziaz behar diren erabakiak hartu behar ditu lan-arloan, merkataritza-arloan eta arlo ekonomikoan sozietate hori desegiteko eta likidatzeko.

- Zahar-etxeak egoera finantzario zaila du: egiturazko defizit garrantzitsua du –Kontuhartzailetzak 388.080 eurokoa dela zenbatetsi du–, eta 453.651 euroko zorra du Udalarekin. Bestalde, diru-sarrera arrunt txikiegiak dauzka entitatearen funtzionamendu-gastuak finantzatzeko. Hori dela eta, behar diren neurri ekonomikoak eta kudeaketakoak hartu behar dira zahar-etxearen bideragarritasun finantzarioa bermatzeko. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmen berria nabarmendu behar dugu; horren bidez, izan ere, egoitza-toki itunduak kopurua handitzen da.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespen batekin

- Langileen kudeaketaren arloan, zenbait ez-betetze aurkitu dira; funtsean honako honi buruzkoak dira: plantilla organikoak ez ditu jasotzen egiturazko lanpostu guztiak, ez eta zahar-etxeke lanpostu bakoitzari esleitutako ordainsari osagarriak ere; bestalde, aldi baterako langileak hautatzeko prozedura ez dago beti jasota.

- 44.750 euro egiten duten diru-laguntzak aztertu ditugu. Horietan, formazko akats batzuk aurkitu ditugu.

- Kontratazio administratiboa aztertzerakoan, ikusi dugu kasuko kontratazio-espeditentia dela-eta izapidetu gabeko gastu batzuk badaudela, 144.020 eurokoak.

Egitate horiek jasota utzi ziren Kontu-hartzaitzak eta udal-idazkaritzak batera egindako txostenetan.

Iritzia

Gure iritiz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginengatik ez bada, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2016ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoa):

III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	3.792.342	0	3.792.342	3.551.714	94	3.412.507	96	139.207
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.846.188	1.800	2.847.988	2.586.446	91	2.440.496	94	145.950
3. Gastu finantzarioak	30.350	0	30.350	24.014	79	23.659	99	355
4. Transferentzia arruntak	536.501	0	536.501	511.217	95	466.898	91	44.319
6. Inbertsio errealak	1.396.742	327.538	1.724.280	102.598	6	95.172	93	7.426
7. Kapital-transferentziak	30.000	0	30.000	8.251	28	0	0	8.251
9. Finantza-pasiboak	308.000	0	308.000	275.139	89	275.139	100	0
Guztira	8.940.123	329.338	9.269.461	7.059.379	76	6.713.871	95	345.508

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	% Kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	1.814.897	0	1.814.897	1.825.605	101	1.696.643	93	128.962
2. Zeharkako zergak	34.200	0	34.200	57.820	169	44.156	76	13.664
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.694.212	0	2.694.212	2.588.595	96	2.555.101	99	33.494
4. Transferentzia arruntak	3.036.986	3.760	3.040.746	2.887.516	95	2.840.420	98	47.096
5. Ondarezko diru-sarrerak	121.415	0	121.415	95.912	79	41.338	43	54.574
6. Besterentzeak Inbertsio errealak	30.000	0	30.000	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	1.266.413	0	1.266.413	6.019	0	0	0	6.019
8. Finantza-aktiboak	0	325.578	325.578	0	0	0	0	0
Guztira	8.998.123	329.338	9.327.461	7.461.467	80	7.177.658	96	283.809

III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2015	2016
+ Aitortutako eskubideak	7.768.333	7.461.468
- Aitortutako betebeharrak	7.385.636	7.059.380
Aurrekontu-emaiza	382.697	402.088
Doikuntzak		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	162.970	2.485
Aurrekontu-emaiza doitua	545.667	404.573

**III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUA-
REN 31n (*)**

Kontzeptua	2015	2016
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	496.508	135.002
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	418.361	283.809
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.468.388	1.511.965
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	572.129	171.816
(+) Ordainketen itzulketak	577	27.912
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.927.953	-1.824.962
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-34.994	-35.540
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.444.313	654.246
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	646.779	345.508
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	118.705	138.759
(+) Diru-sarreren itzulketak	1.004	1.004
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-8.085	-8.085
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	685.910	177.059
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.098.457	2.225.526
Diruzaintzako gerakina, guztira	1.150.652	1.706.282
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	214.913	214.913
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	935.739	1.491.369

III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2015	2016
A Ibilgetua	47.339.138	40.260.527
1 Ibilgetu materiala	30.297.985	34.372.836
2 Ibilgetu ez-materiala	668.154	669.364
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	13.458.766	2.304.094
4 Herri-ondasunak	2.907.321	2.907.321
5 Finantza-ibilgetua	6.912	6.912
C Zirkulatzaila	4.696.568	4.294.840
7 Izakinak	2.883	2.883
8 Zordunak	2.588.124	2.058.346
9 Finantza-kontuak	2.105.561	2.233.611
Aktiboa, guztira	52.035.706	44.555.367

Pasiboa

Deskribapena	2015	2016
A Funts berekiak	45.970.915	39.564.614
1 Ondarea eta erreserbak	29.405.770	23.166.411
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	940.574	774.908
3 Kapitaleko diru-laguntzak	15.623.295	15.623.295
B Epe luzeko zorrak	4.403.850	4.128.711
4 Jasotako maileguak	4.403.850	4.128.711
D Epe laburreko hartzekodunak	1.660.941	862.042
6 Aitortutako betebeharreratiko hartzekodunak	764.480	484.268
7 Administrazio publikoak	138.912	131.560
8 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	723.536	210.674
9 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	34.013	35.540
Pasiboa, guztira	52.035.706	44.555.367

III.5. 2016KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015	2016	Hartzeko	2015	2016
Deskribapena			Deskribapena		
3 Izakinak	2.883	2.883	3 Hasierako izakinak	2.883	2.883
61 Langile-gastuak	3.535.541	3.558.816	70 Salmentak	2.409.705	2.474.494
62 Finantza-gastuak	32.439	24.014	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	365.167	155.937
63 Tributuak	514	862	72 Produkzioari eta inportazioari lotu-tako tributuak	1.377.900	1.393.639
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.721.044	2.578.482	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	412.482	418.673
67 Transferentzia arruntak	421.903	511.217	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	4.181
68 Kapital-transferentziak	67.278	8.251	76 Transferentzia arruntak	2.866.242	2.883.335
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	942.686	779.825	77 Kapitalaren gaineko zergak	139.699	71.113
			78 Bestelako diru-sarrerak	150.210	60.095
Guztira	7.724.288	7.464.350		7.724.288	7.464.350

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015	2016	Deskribapena	2015	2016
84 Itxitako aurrekontuetako aitortutako eskubideen eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	2.112	4.917	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	942.686	779.825
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	940.574	774.908	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0	0
Guztira	942.686	779.825	Guztira	942.686	779.825

IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 8,94 milioi euroko gastuak eta 8,99 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; 58.000 euroko superabit hori bideratuta zegoen zahar-etxearen diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzera.

Aurreko hasierako kredituak ehuneko lau –hau da, 0,33 milioi euro– handitu ziren aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, gastuetan 9,27 milioi euroko eta diru-sarreretan 9,33 milioi euroko behin betiko aurreikuspenak daude. Aldaketa horiek eragina dute batez ere diru-sarreraren finantza-aktiboen kapituluan eta gastuen inbertsio errealen kapituluan.

Aitortutako betebeharrak 7,06 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 76ko betetze-maila izan dute. Aitortutako eskubideek 7,46 milioi euro egiten dute, eta betearazte-maila ehuneko 80 da.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera		Finantzabidea	
Langileak	50	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	44	Transferentziak	39
Inbertsioak eta kapital-transferentziak	2	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Finantza-zama	4	Zorduntzea	0
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 94 azaltzen dute eta finantzazamak (interesak gehi amortizazioa), berriz, ehuneko lau. Diru-sarreretan, iturri nagusia tributu-izaerakoak dira, ehuneko 60 baitira.

Hona Udalaren 2016rako aurrekontuaren betearazpenari buruzko datu ekonomiko bateratuak eta 2015ekoarekiko alderaketa:

	2015 ⁽¹⁾	2016	Aldea (%) 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	7.386.085	7.059.379	-4
Aitortutako eskubideak, guztira	7.768.332	7.461.467	-4
Gastuen betetzea (%)	90	76	
Diru-sarrerren betetzea (%)	95	80	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.711.441	6.673.391	-1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.679.002	6.649.377	0
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	361.931	110.849	-69
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	312.713	275.139	-12
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.599.614	7.455.448	-2
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.684.104	4.472.020	-5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	168.718	6.019	-96
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	70	67	
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta	863	858	-1
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	47	14	-69
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak	602	575	-5
Diru-laguntzen menpekotasuna (%)	39	39	
Aurrezki gordina	920.612	806.071	-12
Finantza-zama	345.152	299.153	-13
Aurrezki garbia	575.460	506.918	-12
Aurrekontu-emaiza doitua	545.667	404.573	-26
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	694.960	677.227	-3
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.150.652	1.706.282	48
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	935.739	1.491.369	59
Finantza-zamaren adierazlea ⁽²⁾	4	4	
Aurrezki gordina / Diru-sarrera arruntak (%) ⁽²⁾	12	11	
Zorpetze-ahalmena (%)	8	7	
Zor bizia	4.403.850	4.128.711	-6
Zorpetze-maila ⁽²⁾	58	55	
Zor bizia biztanleko	566	531	-6

⁽¹⁾ Auditatu gabeko ekitaldia

⁽²⁾ Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak

2016an, Udalak eta haren menpeko enteak aurreko ekitaldian baino ehuneko lau gutxiago gastatu dute eta aurreko ekitaldian baino ehuneko lau gutxiagoko diru-sarrerak izan dituzte.

Gastu arruntek ehuneko bat egin dute behera; kapitaleko gastuek, aldiz, ehuneko 69ko jaitsi-era izan dute. Diru-sarrerari dagokienez, haien jaitsieraren justifikazioa kapitulu guztietan izandako beherakada izan da.

2016an, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino 0,78 milioi gehiago dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 0,68 milioi eurokoa da eta ehuneko hiru jaitsi da 2015eko ekitaldikoaren aldean; bestalde, aurrekontu-emaiza doitua 0,4 milioikoa da, ehuneko 26 txikiagoa aurreko ekitaldiko baino.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak nabarmen egin du gora: 0,94 milioitik 1,49 milioira; hau da, ehuneko 59. Udalak, akats informatiko batengatik, zenbateko okerra erabili du bilketa zaileko eskubideen kalkulua egiteko, diruzaintzako ibilgetu bateratuaren egoera-orria zehazterakoan. Kalkulurako oinarri zuzena erabiliz, 2016ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak behar baino 245.680 euro gutxiagoko balioa du.

Aurrezki gordina, zeina 2016an 0,8 milioikoa baita, ehuneko 12 jaitsi da; finantza-zama, berriaz, ehuneko 13 jaitsi da. Aurrezki garbiak ehuneko 12ko jaitsiera izan du, zeren eta 0,58 milioikoa izatetik 0,51 milioikoa izatera pasa baita.

Zor bizia ehuneko sei jaitsi da, eta 2016an 4,1 milioikoa izatera iritsi da; halaber, zorpetze mailak behera egin du, ehuneko 58tik ehuneko 55era. Biztanle bakoitzeko zorra 531 eurokoa da 2016an (566 euro 2015ean). 2016an ez da zorraren amortizazio aurreraturik egin.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Cintruenigoko Udalak finantza-egoera bateratu kaudimenduna dauka 2016ko abenduaren 31n, eta bere zor bizia ehuneko sei jaitsi da; 0,51 milioiko aurrezki garbia du eta 1,74 milioi euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Aurreko ondorioa gorabehera, nabarmendu behar dugu zaharren egoitzak 2016an 31.520 euroko aurrekontu emaitza negatiboa duela; gastu orokorretarako 448.336 euroko diruzaintzako gerakin negatiboa du, eta 24.903 euroko aurrezki garbi negatiboa; magnitude horiek, Kontu-hartzailetzak erakunde autonomo horren oroitidazki ekonomiko eta aurrekontukoan adierazten duenez, okerrera egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Kontu-hartzailetzak dio diruzaintzako gerakin negatibo horrek bi osagai dituela; finantzaketarik gabe egindako inbertsioak -60.256 euro- eta egiturazko defizita -388.080 euro-.

Halaber, aipatutako zahar-etxeak 453.651 euroko zorra dauka Udalarekin. Zor horren jatorria 2014a baino lehenagoko ekitaldietan emandako aurrerakinak dira, hark itzuli ez dituenak, eta arrazoizko zalantzak badaude zenbateko horiek Udalari itzultzeko aukerari buruz. 2016an, emandako diru-laguntza 58.000 eurokoa izan zen.

Ikusten da, horrenbestez, egoera zaila dagoela, batez ere diru-sarrera arruntak nahikoak ez direlako funtzionamenduko gastuak estaltzeko. Kontabilitate-neurri gisa, 2016ko aurrekontu bateratua onetsi zen, 58.000 euroko superabitarekin -kopuru hori bat dator Udalaren zahar-etxearentzako diru-laguntzarekin-, diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko; diru-zenbateko hori, ikusten denez, ez da nahikoa izan kontuak berronkatzeko.

2016ko azken hiruhilekoan, beste hitzarmen bat sinatu da Nafarroako Gobernuarekin; haren bidez, toki itunduen kopurua handitu da.

Zahar-etxea dela eta, honako hauek gomendatzen ditugu:

- *Udalak neurri zehatzak hartu beharko lituzke zahar-etxearen bideragarritasun finantzarioa bermatzeko eta, azken batez, zerbitzua ematen jarrai dadin bermatzeko. Horretarako, jarduketan plan bat egin behar du, eta hartan haren behar finantzarioak eta kudeaketarako neurri egokiak jasotzeko.*

- *Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako neurriak aplikatzea zahar-etxearen diruzaintzako gerakin negatiboa ezeztatzeko.*

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu funtsean:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak –hau da, Udalaren 2016ko gastu zenbakarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak– ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarreraren ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Bateratzearen perimetroa

Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako, Udalak aurreikusi duen bateratze-perimetroa Udalak berak, bere erakunde autonomoak eta bere sozietateak osatzen dute.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua.

Udalak 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 0,71 milioi finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	677.228
Zalantzazko diru-bilketako diru-sarreraren doikuntza	32.547
Finantzaketa-ahalmena	709.775

- Gastuaren araua.

2016ko ekitaldiko gastu zenbakarria 2015eko ekitaldikoa baino 123.793 euro txikiagoa da; horrenbestez, bete egiten da arau hori, zeren eta ez baita ehuneko 1,8ko erreferentziako tasa gainditu.

Kontzeptua	2015	2016
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	7.072.823	6.784.240
Zorpetze-interesengatiko doikuntza	-32.439	-24.014
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-187.479	-3.317
Funts finalistekin finantzatzeko gastuengatiko doikuntzak	-489.809	403.070
Oinarri-urtearen gastu zenbakarria	6.363.096	6.353.839
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
2016rako gehieneko gastu zenbakarria	6.477.632	

- Finantza-iraunkortasunaren araua.

2016ko abenduaren 31ko zor bizia 4,13 milioi da, eta zenbateko horrek 2016ko ekitaldiko diru-sarreraren ehuneko 55 egiten du; portzentaje hori arau indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera dago.

- Hornitzaileei ordaintzeko epea.

Adierazle horren batez besteko hiruhilekoko balioa honako hau izan da 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	-18,41
Bigarren hiruhilekoa	-22,30
Hirugarren hiruhilekoa	-12,43
Laugarren hiruhilekoa	-17,46

Horrenbestez, Udalak bete egin du arau hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketetarako ezarritakoa baino (normalean, 30 egun naturalako epea izaten da).

Azkenik, nabarmendu behar dugu ezen, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikuluari jarraituz, Udalak 2016an ikuspuntu finantzariotik jasangarriak diren inbertsioak egin dituela, aurreko ekitaldiko superabita aplikatuz. Inbertsio horiek 3.317 euroko gastua ekarri dute 2016an.

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

• 2016ko ekitaldirako aurrekontua eta betetze-oinarriak 2016ko martxoaren 16ko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen; hau da, legedi indardunak ezarritako epea gaindituta. Dokumentu horrek ez du informaziorik biltzen udal sozietateari buruz.

- Aurrekontu-aldaketen lagin bat berrikusi da, eta ondorioztatu da zuzen izapidetu zirela.
- 2016ko kontu orokorra 2017ko irailaren 6an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Kontu orokor horrek Udalaren eta haren erakunde autonomoaren egoera-orri bateratua jasozten du, aurrekontu-informazioari eta gainerako egoera-orri finantzarioei dagokienez; salbuespena oroit-idazki ekonomikoa da, zeina entitatez entitate aurkezten baita.

• Ondasunen inbentarioa 2006koa da. 2017ko ekitaldian, Udalak inbentarioa gaurkotu du: 28,49 milioi euroko saldoa du. Lan horretan ez da sartu zahar-etxearenak diren ondasunen berri-kuspenea; horien kontabilitate-balioa 3,97 milioi eurokoa da 2016ko abenduaren 31n.

- Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik sortu.
- Udalak ez du zahar-etxearen jardueren gaineko kontrol- eta gainbegiratze-mekanismoak erabiltzen modu sistematikoan.
- Udalaren zor biziaren muga-eguneratzeen egutegia, banku-entitateekikoa, honako hau da 2016ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2017	277.574	7	7
2018	278.454	7	13
2019	279.340	7	20
2020	280.234	7	27
2021	281.136	7	34
2022-2026	1.308.258	32	66
2027-2031	1.072.186	26	91
2032-2035	351.530	7	100
	4.128.712	100	

Ikusten da maileguak amortizatzeko kuotak nahiko uniformeak izan direla ekitaldietan zehar.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontua onestea legedi indardunean aurreikusitako epean, eta aurrekontuaren espedientean eskatutako dokumentu guztiak sartzea.*
- *Kontu orokorra indarrean dagoen araudiak agintzen dituen epeen barruan onartzea. Hartan oroit-idazki ekonomikoa bateratua jasotzea.*
- *Udal inbentarioa gaurkatzeko hasitako lanak amaitzea, hura Udalaren ondasun guztietara zabalduz, honako helburu honekin: altak eta bajak kontrolatu eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baititu inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatean islatutako ibilgetuarekin lotzea.*
- *Hirigintza-hitzarmenen Erregistroa osatzea.*
- *Udalaren kontroleko eta gainbegiratze teknikoko organoen jarduketa-prozedurak sistematikoki aplikatzea zahar-etxearen jardueretan, haren kudeaketa-esparruetan legedi indardunaren betetzea egiaztatzeko.*

IV.4. LANGILEAK

Langile-gastuek 3,55 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 94koa izan da. 2016ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 50 dira. 2015eko ekitaldikoaren aldean, gastu hori ehuneko 0,5 igo da.

Hona gastu horien xehatzea eta 2015ekoekiko alderaketa:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Goi-karguak	59.104	58.659	-1
Funtzionarioak	921.326	946.330	3
Lan-kontratudun langileak	1.515.062	1.436.588	-5
Gizarte-zamak	1.036.805	1.110.137	7
1. kapitulua, guztira	3.532.297	3.551.714	0,5

Gastuaren igoeraren arrazoia da, funtsean, langileen ordainsariak ehuneko bat igo direla.

2016ko langile-gastuetatik ehuneko 63 Udalari dagozkio eta ehuneko 37, berriz, zahar-etxeari.

Udaleko langileen enplegu-baldintzak, oro har, zenbait akordio eta hitzarmenen arabera arautzen dira. Hartara:

- Langile funtzionarioak: haien lan-baldintzak 2012rako eta 2013rako arautzeko akordio baten arabera; gaur egun, aplikatzen jarraitzen da akordio hori.
- Lan-kontratupeko langileak eta administrazio-kontratupeko langileak, 2004tik 2007ra doan aldirako izenpetutako akordio baten arabera. Akordio hori indarrean dago gaur egun.
- Zahar-etxeako langileek beren hitzarmena dute.

Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 6an onetsi zuen behin betiko 2016ko plantilla organikoa, eta 2016ko apirilaren 28ko NAOn argitaratu zen. Plantilla organiko horrek 77 lanpostu dauzka guztira; sei lanpostu hutsik daude, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

Lanpostu-kopurua	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	36	33	3	2
Funtzionarioak	30	28	2	1
Lan-kontratudun finkoak	6	5	1	1
B. Zahar-etxea	41	38	3	1
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratudun finkoak	41	38	3	1
Guztira	77	71	6	3

Onetsitako plantillari dagokionez, honako hau aipatu behar dugu:

- Onespina legedi indardunean ezarritako epeaz kanpo eman zitzaion.
- Lanpostuen ehuneko zortzi hutsik daude.
- Zahar-etxeari dagozkion plantilla organikoko lanpostuetan, haiei esleitutako lansarien osagarriak xehakatzen dira.
- Ikusten da desfase garrantzitsu bat badagoela plantilla organikoan jasotako lanpostu-kopuruaren eta entitatean egiazki lan egiten duten pertsonen kopuruaren artean, hurrengo paragrafoetan zehaztuko dugun bezala.

2016ko abenduaren 31n, 116 pertsonak lan egiten dute guztira Udalean eta haren erakunde autonomoan; hona xehetasunak:

2016ko abenduaren 31ko langileak	Udala	Zahar-etxea	Guztira
Udaleko batzarkideak	1	0	1
Izendapen askekoak-funtzionarioak	1	0	1
Funtzionarioak	27	0	27
Lan-kontratudun finkoak	5	36	41
Lan-kontratu mugagabea duten langile ez-finkoak	4	0	4
Behin-behineko lan-kontratudunak	2	0	2
Aldi baterako lan-kontratudunak	24	16	40
Guztira	64	52	116

Langileen ehuneko 36k aldi baterako kontratua dute Aldi baterako langile horiek honela daude banatuta:

Langileak	Kopurua
Administrazioa	5
Obretako brigada	8
Musika eskola	14
Zahar-etxeke zaintzaileak	15
Guztira	42

Langile-arloa dela-eta egin dugun lanetik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Guztira 14 langile daude aldi baterako kontratuarekin: musika-eskolako irakasleak dira, urtero ikasturterako kontratatzen direnak. Plantilla organikoak ez ditu jasotzen langileen lanpostu horiek.

Horri dagokionez, 2014ko azaroan, Udalak Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren idazki bat jaso zuen, langile horiek erregulariza zitzan eskatzen zuena.

- Gutxienez ere, Udaleko beste lau langilek –lan-kontratupeko hiru langile finkok eta aldi baterako kontratupeko langile batek– ez dituzte plantilla organikoko lanpostuak betetzen; haien antzintasun 1999koa, 2004koa, 2006koa eta 2011koa da.

Zahar-etxean, gutxienez ere hiru langilek ez dituzte plantillako lanpostuak betetzen; 2005eko, 2008ko eta 2010eko antzintasuna dute. Plantillan ez dago jasota, ezta ere, bertako zuzendaria-
ren lanpostua: 2010etik dago beteta.

- Udalak urtero kontratatzen ditu, txandaka, obren brigadarako, enplegu-bulegorako eta kulturaren eta kirolaren arlorako errefortzuko langileen kopuru jakin bat. 2016ko itxieran, aldi baterako langileen artean hiru kategoria horietako 10 langile daude; horietatik, bakarrik ere ez du betetzen plantilla organikoko lanpostu hutsik.

- Zahar-etxean langileen kontratazioarako egindako zerrenda gehienak agortuta daude, beren antzintasuna dela eta. Horregatik, kontratazioak batzuetan sarrerako behar den prozedura erabili gabe egiten dira, edo beste espezialitate batzuetako langileen kontratazioarako oraindik ere agortu gabe dauden zerrendak erabiltzen dira.

- Udaleko eta zahar-etxeke langileen lagin baten aldi baterako kontratazioa berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu berrikusitako kontratazioetatik hirutan ez dagoela jasota zen kontratazio-prozedura jarraitu zen; 2005eko, 2012ko eta 2016ko antzintasuna dute lanpostu horiek. Azken urte horretako kontratazioa dela eta, ez da alde zuzeneko motibazioa jaso, hain zuzen ere lan-

postu hori betetzea urgentea eta ezin geroratzekoa dela dioena, edo lehentasunezko izaera duela, edo funtsezko zerbitzu publikoari atxikia dagoela.

- Langileen nominen lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ezen, oro har, gastu horiek zuzen kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla; honako hauek dira salbuespenak:

a) Udaleko lan-kontratupeko langileek ehuneko bosteko antzinasun-osagarria jasotzen dute; amaitutako hirurtekoengatik sortzen da hori, hitzarmen indardunean erregulatu bezala. Osagarri hori handiagoa da administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratupeko langileentzat legez ezarrita dagoen antzinasun-osagarria baino.

b) Egoitzako langileen lansari-osagarriak, lehen aipatu dugun bezala, ez daude plantilla organikoan.

Plantilla organikoan aurkitutako gorabeheretatik zati handi bat urtero aipatzen da Udaleko kontu-hartzailetzako zerbitzuek eta zerbitzu juridikoek egiten duten baterako txostenean.

2016an, plantilla organikoarekin batera, lan-eskaintza publiko bat onetsi zen; dena den, ebazpenean aipatzen den bezala, lanpostu horietatik bi ez dira aurten deituko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean jasotako mugak eta aurrekontu-zuzkiduraren falta direla eta. Lan-eskaintza publikoak ez du jasotzen egoitzako lanpostuetatik bakarra ere.

Gure gomendioak:

- *Udaleko langileen lan-baldintzak erregulatzen dituzten akordioak gaurkotzea.*
- *Udalaren plantilla organikoa onestea legez ezarritako epeetan.*
- *Plantilla organikoan egiturazko izaera duten lanpostu guztiak sartzeta.*
- *Plantilla organikoko lanpostu guztietan haiei esleitutako lansari-osagarriak jasotzea.*
- *Aldi baterako lan-kontratupeko langileen egoera aztertu, berrikusi eta erregularizatzea, araudiaren egungo egoeran.*
- *Justifikatzea kontratazio berriak aparteko kasuetan egin daitezela eta, betiere, beharrian urgente eta geroraezinak betetzeko.*

IV.5. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 2,59 milioi eurokoak izan ziren; betetze-maila aurreikusitako kredituaren ehuneko 91koa izan da, eta ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 37 egiten du. 2015. urtearen aldean, ehuneko bost egin du behera.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Hornidurak	933.451	837.980	-10
Udal zerbitzuen kudeaketa	377.274	334.922	-11
0-3 urtekoen ikastetxearen kudeaketa	284.034	257.591	-9
Mantentze-lanak	257.766	283.973	10
Herriko festak	181.680	188.990	4
Elikagaiak	105.256	101.149	-4
Kultur eta kirol jarduerak	88.263	93.250	6
Bestelakoak	497.078	488.591	-2
2. kapitulua, guztira	2.724.802	2.586.446	-5

2016an kapitulu horretan izan den gastutik ehuneko 89 Udalari dagozkio eta ehuneko 11, berriaz, zahar-etxeari.

“Udal zerbitzuen kudeaketa” atalaren zenbatekoa guztiz dagokie udal sozietateak Udalari hilerro, garbiketa- eta atezaintza-zerbitzuak direla eta, egiten dizkion fakturei. Gastu horietaz gainera, -266.555 eurokoak izan dira berez- abenduko fakturak 68.367 euroko kopuru bat jasotzen du, zeina sozietateak Foru Ogasunari ordaindu beharreko urteko ordainketari baitagokio, BEZaren kuotengatik eta jasotako ikuskatze fiskal baten ondorioz ezarritako zehapenarengatik.

2016ko ekitaldian adjudikatutako honako kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	2016ko gastua (BEZa kenduta)
2016ko jaietako zezen-ikuskizunak antolatzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	15.702	3	15.500	15.500
Festetako musika-ikuskizunak	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	20.661	6	20.161	20.161
Ikus-entzunezko edukien produkzioa eta banaketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	13.016	1	12.998	12.998

Haiek berrikusita, ondorioztatzen da ezen, oro har, espeditente horiek araudi indardunean ezarritakoari jarraituz izapidetu direla, honako salbuespen honekin:

- Faktura batzuk lege ezarritako epea gaindituta ordaindu dira.
- Udalak ez du kontrol-sistematik ezarri hirugarrenei kontratatutako zerbitzuen ematea zuzen betetzen dela ebaluatu ahal izateko.

Halaber, kapitulu honetako gastuen lagin bat berrikusi da -goi presioko uraren hornidura eta 0-3 urteko zentroaren kudeaketa-, eta egiaztatu da haiek beren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, araudi indarduna errespetatu dela.

Hala eta guztiz ere, ikusi da zenbateko aipagarria duten honako zerbitzu hauetako kontratuak amaiturik daudela:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZik gabe)
Kaleetako garbiketa	42.616
Agentzia Exekutiboa	32.280
Arte gunearen kudeaketa	10.992
Isunen kudeaketa	10.320
Jaietako menuaren gastuak	8.478
Zahar-etxeke elikaduraren 1. hornitzailea	25.588
Zahar-etxeke elikaduraren 2. hornitzailea	13.746
Guztira	144.020

Arteen zentroaren kudeaketari dagokionez –jarduera hori enplegu-zentro berezientzat erre-serbatuta dago–, 2015ean kontratazio-espeditente bat izapidetu zen, eta eman gabe geratu zen. 2018an, adjudikazio berri baterako izapideak hasi dira.

Agentzia exekutiboaren ordainsariak 2000n sinatutako kontratu batean oinarrituta daude; zabal gairatzen da, beraz, araudian ezarritako indarraldia.

Horri dagokionez, 2016ko ekitaldian zehar, Udaleko kontu-hartzaitzak eta idazkaritzak eragozpen-txosten batzuk egin izan dituzte, zerbitzu batzuk ematen direlako beren zenbatekoagatik kontratazio-prozedura erabiliz adjudikatu beharko liratekeenak.

Gure gomendioak:

- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea errepikakorrak izateagatik eta zenbatekoagatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan.*
- *Fakturak indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan ordaintzea.*
- *Kontrol-mekanismo bat garatzea, adjudikazio-hartzaileek zerbitzuak zuzen betetzen dituztela ebaluatu ahal izateko.*

IV.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL- TRANSFERENTZI-ENGATIKO GASTUAK

Izaera horretako gastuek 520.000 euro egin dute 2016an, eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. Guztizko gastuaren ehuneko zazpi dira. Gastu horiek ehuneko sei handitu dira 2015eko ekitaldikoekin alderatuta.

Honako hauek dira 2016ko gastuaren xehetasunak eta 2015eko ekitaldiko gastuekiko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa 2016/2015
	2015	2016	
Toki entitateei	165.960	183.719	11
Enpresa pribatuei	125.433	193.789	54
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	130.510	133.709	2
Transferentzia arruntak guztira	421.903	511.217	21
Enpresa pribatuei	67.728	8.251	-88
Kapital-transferentziak guztira	67.728	8.251	-88
Transf., guztira	489.631	519.468	6

2016ko transferentzien arloko gastu osoa Udalari dagokio.

Transferentzia handienak erabili dira kirol-instalazioen funtzionamendua finantzatzeko –184.950 euro–, oinarrizko gizarte zerbitzuen kuotaren ekarpena ordaintzeko –150.000 euro– eta Udaleko kirol- eta kultur-arloetako elkarten funtzionamendurako –117.598 euro–.

Kapital-transferentziei dagokienez, haien beherapenaren arrazoia da 2015ean laguntza finantzarioen tokiko planaren barruan sartutako laguntzak eman izana; horietatik, 2016an 8.251 euroko laguntzak eman dira bakarrik.

Udalak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategikorik, ez eta diru-laguntzei buruzko ordentza orokorrik ere.

Berez mankomunatuta dauden zerbitzuetarako transferentzietan gainera, honako hauek berri-kusi dira: kirol instalazioen funtzionamendurako egindako ekarpena –184.950 euro–, Musika Bandarentzako zuzeneko diru-laguntza –44.750 euro– eta Cirbonero kirol klubarentzako zuzeneko diru-laguntza –26.000 euro–. Honako gorabehera hau ikusi da:

- Musika bandari emandako zuzeneko diru-laguntzan, formazko akatsak ikusten dira hura eman eta kudeatzerakoan. Udalak, dena den, jasota dauka lagundutako jarduerak egiazki egin direla. Inguruabar hori dela eta, Udaleko idazkaritzak eta kontu-hartzaileak baterako eragozpen-txostena egin dute. Tokiko gobernu batzarrak erabaki zuen emandako diru-laguntza osorik ordaintzea.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura orokorra eta diru-laguntzen justifikazioa arautzen dituen ordentza orokor bat onartzeko egokitasuna aztertzea.*
- *Musika bandari emandako diru-laguntzari buruzko alderdi garrantzitsuak egoki formalizatzea.*

IV.7. INBERTSIOAK

Inbertsio-gastuak 102.598 eurokoak izan dira, ehuneko seiko betetze-portzentajearekin: ehuneko 65 jaitsi dira 2015ekoekin alderatuta. Betetzearen beherapen horren arrazoia da zenbait sare- eta zolatzetan egiteko 2016rako aurreikusita zeuden lanak, 1,4 milioi euro egiten dutenak, azkenean 2017an egin direla.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan gastu aipagarrienak:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZik gabe)
Oteroko patioa zolatzeta	52.765
Trenbide-korridorea berreskuratzea	7.600
Uretarako makineria eta tresnak	5.442
Guztira	65.807

2016an kapitulu horretan izan den gastutik ehuneko 94 Udalari dagokio eta ehuneko sei, berriaz, zahar-etxeari.

Oteroko patioa zolatzeko gastuak berrikusi ditugu, eta egiaztatu dugu euskarri-dokumentazioarekin zuzen justifikatuta daudela, egoki kontabilizatuta daudela, kontabilitate-araudia bete dela eta adjudikazioan onetsitako aurrekontua bete dela.

Halaber, urte horretan adjudikatutako honako kontratu hau berrikusi da:

Deskribapena	Kontratu-mota Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2016ko gastua (BEZik gabe)	
Zenbait kaletako zolatzeta eta sare-berritzea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.193.842	5	952.328	-

Azterketa horretatik, ondorioztatzen da araudi indardunean ezarritakoaren arabera izapidetu direla. Obren exekuzio osoa 2017an egin da.

IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	1.892.750	1.825.605	-4
2. Zeharkako zergak	37.331	57.820	55
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.754.023	2.588.595	-6
4. Transferentzia arruntak	2.866.242	2.887.516	1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	49.268	95.912	95
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.599.614	7.455.448	-2
6. Inbertsioen besterentzea	7.139	0	-100
7. Kapital-transferentziak	161.579	6.019	-96
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	168.718	6.019	-96
Diru-sarrerak, guztira	7.768.332	7.461.467	-4

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,46 milioi eurokoak izan dira, eta ia guztiz diru-sarrera arruntei dagozkie. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 80koa izan da, eta kapitulu guztietako aurrekontuetan jasotaketik oso gainetik edo oso hurbil dago hori, kapital-transferentzien kasuan izan ezik; izan ere, azken hori ia ez da bete, nahiz eta 1,27 milioi euroko aurrekontu onetsia izan. 2015. urtearen aldean, guztizko diru-sarrerak ehuneko bat lau dute behera.

2015ean bezala, 2016an Udalak ez du hirigintza-eragiketetatik heldutako diru-sarrera aipagarririk jaso. Ez du, ezta ere, finantza-zorpetzerik itundu.

2016ko guztizko diru-sarretatik, ehuneko 80 Udalarari dagokio eta ehuneko 20, berriz, zahar-etxeari.

Diru-sarreraren aurrekontuaren partiden lagin baten gainean azterketa egin ondoren –zergak, ur-hornidura, zahar-etxeako kuotak, 0-3 urteko ikastetxearen kuotak eta parke eolikoko eta eguzki-plaketako kanonak–, egiaztatu dugu, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla.

- Zergen bidezko diru-sarrerak

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	1.160.180	1.154.191	-1
Ibilgailuak	412.482	418.673	2
Lurren balio-gehikuntza	139.699	71.112	-49
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	180.389	181.629	1
EIOZa	37.331	57.820	55
Guztira	1.930.081	1.883.425	-2

Alde garrantzitsuenak ikusten dira gainbalioen gaineko zergaren eta EIOZaren diru-bilketan, zeren eta higiezinaren transmisioak behera egin baitu eta obrak egiteko eskaeren espedienteen kopuruak gora egin baitu, hurrenez hurren.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landa kontribuzioa	0,8	
Lurraren kontribuzioa	0,2388	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,17 eta 3,4 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	8,56	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	3,21	2 - 5

Tasa horiek 2015eko tasen antzekoak dira.

2017an ez zen kudeatu, kasu oso argi eta zehatzetan izan ezik, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, haren legezkotasunari buruz dagoen zalantza dela-eta eta haren araupetzean aldaketak eginen direlakoan. Udalak, gaur egun, ez du 2016an igorritako gainbalioei buruzko ebatzi beharreko erreklamaziorik, baina bai 2017an igorritako gainbalioengatikoak: 47.192 euro egiten dute azken horiek.

Egindako berrikuspenean, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

a) Azkeneko balorazio-ponentzia 2007. urtean egin zen. 2017ko ekitaldian, Udalak gaurkotzeko lanak hasi ditu. 2018an amaitzea espero da. Horrenbestez, Udalak hiri-lurren kontribuzioari eta landa-lurren kontribuzioari aplikatzen aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du.

b) EIOZa ordainarazten da zergadunak aurkeztutako hasierako aurrekontuaren arabera eta, orokorrean, ez da egiten egiaz egindako gastuaren arabera behin betiko likidaziorik.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia eguneratzeko hasitako lanak amaitzea.*
- *Tasa bakarria aplikatzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, legedi indardunean ezarritakoari jarraituz.*
- *EIOZa kasu guztietan likidatzea obraren amaierako betetze erreala kontuan hartuta.*
- Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk.

Ondoren 2016ko eta 2015eko tasen prezioen eta beste diru-sarrerak batzuen bitarteko diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu:

Tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bi-dezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2016/2015
	2015	2016	
Zahar-etxeko tasak	1.491.735	1.485.994	0
Ur-hornidura	493.050	475.549	-4
0-3 urtekoen zentroko kuotak	193.325	157.433	-19
Musika eskolaren tasa	72.310	70.273	-3
Iberdrolaren tasak	46.539	42.644	-8
Azoka txikiko tasak	40.563	40.542	0
Trafiko zehapenak	34.288	40.777	19
Premiamendu-errekarguak	37.874	33.089	-13
Bestelako diru-sarrerak	344.339	242.294	-30
Guztira	2.754.023	2.588.595	-6

Kontzeptu nagusiak zahar-etxeko egoiliarren, ur-horniduraren eta 0-3 urtekoentzako zentroko kuotengatiko diru-sarrerak dira. Beherapena zor zaio, funtsean, 0-3 urtekoentzako zentroko matrikuletan likidazio txikiagoa egon izanari, zerbitzu hori gutxiago erabili baita; halaber, 2015ean, diru-sarreraren kapitulu honetan, parke eolikoaren eta eguzki-plaken kanonarengatiko

diru-sarrerak –47.849 euro– eta hilerriko emakidengatiko diru-sarrerak –19.124 euro– sartzen ziren, zeinak ondare bidezko diru-sarrerara gisa sailkatzen baitziren 2016an.

- Transferentzien bidezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko transferentzien bidezko diru-sarrerak alderatuta, honako hau da emaitza:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	2.423.426	2.469.468	2
Funtzionarioen montepioak	139.265	149.035	7
Hurtzaindegiaren funtzionamendua	113.081	99.901	-12
Udalbatzako kideen ordainsariak:	52.768	53.771	2
Musika eskola	23.794	34.091	43
Berdintasuneko jarduerak	17.439	26.653	53
Trenbide korridorea	30.980	17.982	-42
Beste diru-laguntza batzuk	54.864	29.566	-31
<i>Subtotala (Nafarroako Gobernua)</i>	<i>2.855.617</i>	<i>2.880.467</i>	<i>1</i>
Estatuarenak	9.262	4.181	-55
Toki entitateenak eta beste batzuenak	1.363	2.868	110
<i>Beste hainbat entitate, honaino, guztira</i>	<i>10.625</i>	<i>7.049</i>	<i>-34</i>
4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira	2.866.242	2.887.516	1
Nafarroako Gobernua	59.801	0	-100
Toki entitateenak eta beste batzuenak	101.778	6.019	-94
7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira	161.579	6.019	-97

Transferentzia arruntan saldoak ehuneko bat egin zuen gora 2015ekoarekin alderatuta, funtsean Nafarroako Gobernutik jasotako onorioz. Kapital bidezko diru-sarrerak nabarmen jaitسي dira; ehuneko 97, hain zuzen.

- Ondarezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko ondarezko diru-sarreraren osaketaren xehetasunak honako hauek dira:

Ondarezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Parke eolikoaren kanona	0	49.011	100
Eguzki-plaken kanona	0	9.643	100
Telefonia-zerbitzuen errentamendua	13.324	8.624	-35
Bestelako diru-sarrerak	35.944	28.634	-20
Guztira	49.268	95.911	95

Kapitulu honen igoeraren arrazoia da, funtsean, parke eolikoaren eta eguzki-plaken eta hilerriaren kanonengatiko diru-sarrerak 2015eko ekitaldira arte tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bidezko diru-sarrerei buruzko 3. kapituluan erregistratzen zirela.

- Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-diru-sarrerak

Hurrengo taulan laburpen bat erakusten dugu 2016an egindako kobrantzei eta 2016ko abenduaren 31n itxitako aurrekontuetako diru-sarreretatik kobratzeko dauden saldoei buruz:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko kobrantzak	Kaudimen gabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	476.361	340.039	5.798	130.641	9	17
2014	186.040	35.448	9	150.583	10	2
2013	150.384	14.213	33	136.186	9	1
2012	228.462	15.773	9	212.680	14	1
2011	117.863	7.189	9	110.665	7	0
2010	115.207	4.792	9	110.409	7	0
2009a eta aurrekoak	670.433	9.580	-69	660.801	44	0
Guztira	1.944.750	427.034	5.798	1.511.965	100	21

2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen artean ageri dira, besteak beste, urbanizazio-kuotak (66.925 euro 2008an, eta 91.518 euro 2009an) eta administrazioarekiko kapital-transferentziei dagozkienak (2008an aitortutako 34.363 euro); horien jatorria eta arrazoizkotasuna aitortzen du Udalak.

Udalak hirugarren batekin kontratatua du epe exekutiboan dauden ordainagiri guztien kobrantzarako laguntza-zerbitzua. Hirugarren horrek 2016ko abenduaren 31n emandako xehetasunei erreparatuta, kobrantzarako jarduketak egiten ari direneko diru-sarreraren guztizko zenbatekoa 961.665 eurokoa da; Udalak, ordea, itxitako ekitaldietatik kobratzeko daukan saldo bateratu moduan 1,51 milioi dauzka.

Gure gomendioak:

- *Berrikustea itxitako ekitaldietako diru-sarreraren saldoak, laguntza kontratuan sartuta ez daudenak, haien jatorria ezagutu eta behar diren jarduketak egiteko.*
- *Beren antzintasuna dela eta, kobraezintzat behin betiko diren saldoak erregularizatzea.*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptu desberdinen kobrantza errazten duten metodo eta mekanismoak indartzea.*

IV.9. "CINTRUÉNIGO DE SERVICIOS MUNICIPALES SL" UDAL SOZIJETATEA

Udalak 1991n sortu zuen udal sozietate hori, 6.010 euroko kapital sozialarekin. Kapital hori osorik Udalak harpidetu eta ordaindu zuen. Egoitza soziala udaletxean bertan du.

Bere estatutuen arabera, haren helburu soziala Udalak esleitutako gisa guztietako zerbitzuak ematean eta obra eta konponketa-lan txikiak egitean datza; praktikan, halere, haren jarduera honako arlo hauek dira, funtsean:

- a) Ikastetxeetako eta bestelako udal instalazioetako garbiketa, udaletxea kenduta.
- b) Udal instalazioetako atezaintza zerbitzua.

Enpresak bere kontuak enpresa txiki eta ertainentzako kontabilitate-planaren arabera egin eta aurkezten ditu. Honako hauek dira haren 2016ko abenduaren 31ko balantzea eta emaitzen kontua eta 2015ekoekiko alderaketa:

Aktiboa

Deskribapena	2015 ^(*)	2016 ^(*)
C Zirkulatuzailea	123.358	86.563
8 Taldeko enpresetako zordunak –Udala–	123.358	86.563
Aktiboa, guztira	123.358	86.563

Pasiboa eta garbia

Deskribapena	2015 ^(*)	2016 ^(*)
A Ondare garbia	1.287	1.287
1 Kapital harpidetua	6.010	6.010
2 Aurreko ekitaldietako emaitzak	(4.723)	(4.723)
3 Ekitaldiko emaitzak	0	0
B Epe laburreko hartzekodunak	122.071	83.844
4 Administrazio publiko hartzekodunak	122.071	83.844
C Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	1.432
5 Aurrez kobratutako interesak	0	1.432
Pasiboa eta garbia, guztira	123.358	86.563

(*) Auditatu gabeko ekitaldiak

Emitzen kontua

Deskribapena	2015 (*)	2016 (*)
A Negozio-zifraren zenbateko garbia	269.671	266.556
1 Salgaien salmentak	269.671	266.556
B Hornidurak	(5.152)	(2.417)
2 Salgaien kontsumoa	(1.054)	0
3 Beste enpresa batzuek egindako lanak	(4.098)	(2.417)
C Langile-gastuak	(268.878)	(269.121)
4 Soldatak eta lansariak	(223.728)	(215.281)
5 Gizarte-zamak	(45.150)	(53.840)
D Bestelako ustiatze-gastuak	(186)	(186)
6 Tributuak	(186)	(186)
E Ustiatzearen emaitza (A+B+C+D)	(4.545)	(5.168)
F Finantza-gastuak	(3.101)	(4.489)
7 Taldeko enpresetan eragina duten interesen deskontua	(3.101)	(4.489)
G Diru-sarrera finantzarioak	7.646	9.657
8 Beste interes batzuk	7.646	9.657
H Finantza-emaitza (F+G)	4.545	5.168
Ekitaldiaren emaitza (E+H)	0	0

(*) Auditatu gabeko ekitaldiak

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Sozietatearen eratze-eskrituraren kopia soila jasota dago, baina gaur arte ez da Merkataritza Erregistroan inskribatu. Horrenbestez, sozietate irregularren kategorian sartzen da.

- Ez dago kudeaketa-egiturarik, ez eta haren arduradunik ere. Eginkizun horiek alkatetzaren zuzendaritzak hartzen ditu bere gain. Kontabilitate- eta administrazio-kudeaketa arduraldi partzialez egiten du Udaleko administrari batek.

- Ez dago jasota urteko kontuak behar bezala formulatuta daudenik. Egitate horrek berekin ekar lezake haren administrazio-organoari zehapen edo isunak ezartzea.

- Sozietateak ez du ibilgetuko ondasunik.

- 2015eko eta 2016ko ekitaldietako emaitza zero eurokoa da; izan ere, udalaren finantzaketa egiazki gauzatu den gastu bolumenaren arabera zenbatesten da. Ustiapenaren emaitza negatiboak izan dira bi ekitaldietan.

- 2016ko abenduaren 31n, sozietatearen ondare garbia 1.287 eurokoa da; haren kapital soziala, berriz, 6.010 eurokoa. Hartara, sozietateak gaur egun ondare-desorekako egoeran dago, eta ustiapeneko emaitza negatiboak ditu, horrek merkataritza-legedi indardunaren arabera daukan ondorioekin. Toki Araubidearen Oinarrii buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera (bederatzigarren xedapen gehigarria), sozietateak, inguruabar horietan, automatikoki deseginda dago.

- 2014tik, sozietateak ez du kontu korrante propiorik; izan ere, ezin ditu banku-entitateetan ziurtagiri bidez frogatu kontu bat edukitzeko behar diren baldintzak. Horrenbestez, une horretatik, udal sozietatearen ordainketak Udalaren kontu korranteetatik egiten dira zuzenean.

- 2016ko itxieran, 13 langile dauzka guztira: 11 garbitzaile –bakarra dago lanaldi osoan– eta bi atezain, biak ere lanaldi osoan. Hau da, lanaldi osoa duten hiru pertsona daude; gainerakoek lanaldi partziala dute, ehuneko 44 eta 80 bitartekoa.

Langile horietatik 11k 2011ko ekitaldiaren aurreko antzintasuna daukate. Oro har, ez dago jasota haiek kontratatzeke zein prozedura jarraitu den; hasiera batean, aldi baterako langile gisa kontratatu ziren.

2016ko ekitaldian, aldi baterako bi kontratazio egin dira enplegu zerbitzu publikoen bitartez.

- 2013ko ekitaldian, Ogasun Publikoak sozietatearen eragiketak ikuskatu zituen, eta ondorioztatu zuen Udalak egindako ekarpenak zerbitzu-emate bat zirela eta, horrenbestez, BEZa sortu behar zutela. Hartara, BEZaren likidazioak egin zituen, 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan sartu gabeko kuotengatik, eta zegokion zehapena ezarri zuen; likidazio eta zehapen horien zenbatekoa, guztira, 190.923 eurokoa izan zen. Hala eta guztiz ere, 2012ko eta 2013ko zerbitzu-emateak zegokien BEZa aplikatu gabe egiten jarraitu zen; 2014ko ekitalditik aurrera, berriz, Ganberaren gomendioei jarraituz, BEZa aplikatzen hasi zen.

BEZari buruzko arauak aldatu ondoren, sektore publikoko entitateek beraiek menpeko diren administrazio publikoei emandako zerbitzuak, administrazio horiek entitate horien titulartasun osoa dutenean, ez daude zerga horren pean. Hori dela eta, 2015eko urtarrietik, zerbitzu-emate horiek BEZik gabe egiten dira berriz ere.

Sozietateak 190.923 euroko kuota eta zehapenen geroratzea eskatu zuen. 2016ko abenduaren 31n, honako zenbateko hauek geratzen dira ordaintzeko, urtez urte:

Ekitaldia	Zenbatekoa
2017	38.184
2018	38.184
2019	3.182
Guztira	79.550

- Udalak sozietateari egindako ekarpenak 334.922 eurokoak izan dira 2016an (2015ean, berriz, 377.275 eurokoak izan ziren). 2016ko zenbateko horretatik, 266.556 euro "Negozio-zifraren zenbateko garbia" delakoan erregistratzen dira, eta sozietateak egindako gastuak ordaintzeko erabiltzen dira: langile-gastuak dira ia guztiak. Gainerako dirua, 68.366 euro, Foru Ogasunari itzuli beharreko kuotei dagokie.

Ekarpen horiei Udalean ematen zaien kontabilitate-tratamendua jasotako zerbitzu-ematearena da, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen 2. kapituluari erregistratzen da guztiz; sozietatean, zerbitzu-emate baten gisara kontabilizatzen da ekitaldian egiazki egindako gastuak finantzatzera bidertatzen den atalean, betiere Ogasunari itzuli beharreko kuoten zatiarengatik kobratzeko dagoen saldo baten gisara.

Hartara, ikusten dugu sozietatearen aktiboa eta pasibo zirkulatuak ia berdinak direla 2016ko itxieran, eta pasiboan erregistratzen direla administrazio publikoekiko zorrak -83.844 euro-, ordaindu gabe daudenak; aktiboan, berriz, Udalak kobratzeko dituen saldoak -86.563 euro-. Puntu horretan, inkongruentzia bat badago, zeren eta Udalak sozietateari egiazki ordaindu beharreko saldoa 68.367 eurokoa baita.

Azken batean, aipatu berri dugunak agerian uzten du tresna-sozietate bat sortu zela berez Udalarenak diren zerbitzu batzuk emateko, inongo egiturarik gabe, eta finantzaketa udal funtsekin egiten dela guztiz. Sozietate hori, Merkataritza Erregistroan inskribaturik ez dagoenez, sozietate irregularren kategorian sartzen da.

Halaber, ikusten da, kudeaketa eskasa izan dela, merkataritza-araudiaren eta langileak kontratatzearen arloko ez-betetze argiekin; gainera, sozietatearen eta Udalaren artean inkoherentzia batzuk badaude kobratu beharreko kontabilitate-saldoetan. Egoera hori larriagoa da, gainera, kontu korrante propiorik edukitzerik ez duelako.

Bestalde, gaur egun indarrean dagoen araudiak ezartzen du Udalarentzat nahitaezkoa dela emandako zerbitzuen efizientziaren eta jasagarritasunaren jarraipen eta ebaluazio jarraitu bat egitea, aztertuz zein diren hura sortzea justifikatu zuten arrazoiak, eta mantentze-, eraldatze- edo azkentze-proposamenen berariazko formulazioa ere sartuz.

Azkenik, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeari jarraituz, sozietatea automatikoki desaginda dago.

Desegite- eta likidazio-kasu horretan, eta enpresaren egungo langileei dagokienez, Udalak ezinbestez jarraitu behar du zerbitzu horiek ematen. Bi aukera dauka horretarako: zerbitzuak kanpoan kontratatu ala haiek zuzenean eman. Azken kasu horretan, lan-arloko araudiari jarraituz, plantillen oinordetza gertatzen da, eta Udalak bere langile guztien lan-kontratuak egungo baldin-

tzetan hartu behar ditu bere gain. Kontratuak bere gain hartze horrek berekin ekarriko luke langile horiek Udalaren plantilla organikoan aldi baterako lan-kontratupeko langile gisa jasotzea; hartara, paraleloan, Udalak langile horien berregituratzeari buruzko azterlan bat egin beharra dauka, eta plantilla organikoan lanpostuak sortu edo, kasua bada, amortizatu behar ditu, eta lanpostuak lan-eskaintza publikoetan sartu behar ditu; aurrerago, haiek betetzeko deialdi publikoa egin beharko du, funtzio publikoari aplikatzekoa zaion araudiari jarraituz.

Gomendatzen dugu Udalak behar diren erabakiak har ditzala merkataritzaren eta lanaren eremuetan, bai eta eremu ekonomikoan ere, sozietate hori desegin eta likidatzeko.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko martxoaren 21ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Cintruenigoko Udaleko alkate den aldetik, Raquel Garbayo Berdonces andreak honako alegazio hauek aurkeztu ditu Kontuen Ganberak 2018ko martxoan Cintruenigoko Udalari buruz egin duen behin-behineko auditoria txostena dela eta.

Kontuen Ganberak 2011ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txostenari dagokionez, Udal honek ahal zuen guztian hartu ditu aintzat hartan jasotako gomendioetatik gehienak.

– Udalaren ondasunen azken inbentarioa 2006an onetsi zenez, eta ordutik zuzendu gabe dagoenez, gaurkotu gabeko dokumentu bilakatu zen; hori dela eta, 2017an, ondasunen eta eskubideen inbentarioa egiteko lanak egin dira.

– 2013an, Udalak “Udalaren Uren Batzarra” tokiko erakunde autonomoa desegin zuen, eta Udalaren unitate administratibok hartu zuten beren gain uren horniduraren eta saneamenduaren zerbitzua.

– Gastuetarako kredituen muga-izaera errespetatzen da, eta dagoen kredituak ez du lotura-poltsa gainditzen.

– Egiaztatu da aurrekontuko kreditua badagoela, eta, kasua bada, behar diren aurrekontu-aldaketak egiten dira.

– Plantilla organikoan jasota dauden lanpostuen kopuruaren eta Udalean eta zahar-etxean egiazki lan egiten duten pertsonen kopuruaren artean dagoen desfaseari dagokionez:

- Zahar-etxean gertatutako desfase horren arrazoi nagusia da San Francisco de Asís udal patronatuak eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak 2016an sinatu zuten hitzarmena, zeinak udal organismoa behartzen baitu zerbitzuen ordu kopuru jakin bat ematera; bestetik, hitzarmenak ez du segurtatzen ohe-kopuru zehatz eta aldaezin bat hitzartzea haren indarraldi osoan, eta berrikusi beharra ere ezartzen du (bere aldaketa aurreikusten du); hori dela eta, ezin dira lanpostu horiek (funtsean, gerokultoreena) egiturazko beharizan baten gisara hartu. Izan ere, 2016ko hitzarmena sinatu baino lehentxeago, egoitzak 17/18 ohe hutsik zeuzkan, batez beste.

- Udalaren beharrak aztertuta, jada 2017ko plantilla organikoan bi lanpostu erregularizatu ziren, udalbatzak egiturazkotzat jo zituenak; hori dela eta, 2017ko plantilla organikoan sortu ziren.

- Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak urtetan elkarrizketak, analisiak eta azterlanak egin ondoren –mankomunitate horrek bide-garbitetaren zerbitzu mankomunitatea eman zezan kide dituen udalerrietan–, badirudi hemendik gutxira aukera hori aurrera aterako dela; horrek berekin ekarriko du zerbitzuaren adjudikazio-hartzaile suertatzen den enpresarekiko kontratua erregularizatzea eta, gainera, udal horrek bi pertsona aldi baterako kontratatze beharra amaitzea; izan ere, bi pertsona horiek “gurdiko” garbiketa-zerbitzua emateko kontratatu izan dira.

- Udalbatzak askotan gogoeta egin du musika eskolako irakasleen gaiari buruz, eta aho batez ondorioztatu du ezen, musika-eskolarena Udalaren berezko eskumen bat ez izanda ere, bizilagunen bizitza nabarmen hobetzen duen zerbitzu bat dela; izan ere, zerbitzu horrek bizilagun gehienei hezkuntza-aukera batzuk ematen dizkie (seme-alabekin musika-eskolak hartzera beste herriren batera joan beharko lukete, bestela). Horrenbestez, Udalak zerbitzu hori ematen jarraitu behar du. Hala eta guztiz ere, eskolaren beharizanak eta funtzionamendua aztertuta eta kontuan hartuta irakaskuntza gehien-gehienak “eskatuta” egiten direla eta irakasle gehienek lanaldiaren portzentaje txikia betetzen duela, pentsatu izan dugu interes orokorraren arabera ez dela komeni lanpostu horiek Udalaren plantilla organikoan sartzea; izan ere, komeni dena da zerbitzu-ematea arrazionalizatzea, zeren eta gure Udalak dauzkan arazoak musika-eskola duten Nafarroako udal gehienetan dauden arazoak berdin-berdinak baitira; horrenbestez, bidezkoa da zerbitzu hori mankomunitateen edo bestelako elkartzetara bitartez ematea edo Nafarroako Gobernuak zuzenean ematea; gai hori, ordea, aztergai dago gaur egun, tokiko maparekin batera erabakiko delakoan.

- Obren arduradun nagusiaren lanpostua 2017an bete zen azkenean, eta karguan hilabete batzuk eman ondoren (2017ko ekainean hartu zuen lanpostuaren jabetza), harekin aztertu dira udal alor honen (brigada) beharrik; izan ere, langileen zati handi bat kontratatu behar izaten zuen funtzionatu ahal izateko, zeren eta herria oso zabala baita eta azken urteetan asko hazi baita. Behar diren neurriak hartuko dira egoera ekitaldi honetan erregularizatzeko.

Cintruengoko 0-3 urtekoentzako udal eskolako jantokiko elikadura zerbitzuaren eta zaintzaileen kontratazioak (2013, 2014 eta 2016koak) erregularizatu egin dira, bai eta udalarentzako ikus-entzunezko edukien produkzio- eta zabalkunde-lanetarako laguntza ere (2016an).

LANGILE-ARLOAREN EGOERA 2016KO EKITALDIAN

Agerian jarri beharra dago langile-arloan 2016. urtean bizitako egoera; izan ere, gurearen tamainako udal batean, dauzkan baliabideekin, gaitzera oso handi bat ekarri zuen langileentzat, eta nabarmen zaildu zuen aipatutako ekitaldiko kudeaketa:

- Bulegoetako langile bat baja medikoan egon zen 2015eko irailtik hasi eta 2016. urte osoan. Ukitutako pertsona horrek 2016ko hasieran itzultzeko asmoa zuen (horregatik ez zen berehala ordezkorik bilatu), baina gaixotasunaren bilakaerak ez zion horretarako aukerarik eman.

- Langileen eta nominen arloaren ofizial arduraduna ia "egun batetik bestera" erretiratu zen.
- Udaltzaingoko funtzionario bat 2015eko zati batean eta 2016. urte osoan baja medikoan egon zen.
- Bulegoetako beste langile bat bajan egon zen 2016ko azaroan eta 2017ko zenbait hilabetetan.
- Udalak ezin izan zuen kontu-hartzaile titularrik izan 2016ko 6 hilabetetan.

Lanpostu hori betetzeko, Udalak Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion kontu-hartzaile bat izenda zezala Nafarroako Gobernuak izangaien zerrendetan zeudenen artean, hura kontratatu ahal izateko. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zigun ez zutela inolaurkitu ordezkapena egiteko; hori dela eta, halaber, Udaleko funtzionario bat gaitu behar izan zen eginkizun horietan aritzeko. Ondoren, bi hautapen-prozedura oso (zerrendak) egin behar izan genituen lanpostua aldi baterako betetzeko.

UDAL SOZIJETATEA

Udaleko gaur egungo idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuek udalbatzari aspaldi jakinarazi zioten ezen, "Cintruénigo de Servicios Municipales SL" enpresa Merkataritza Erregistroan sekula inskribatu ezenez, ez duela inoiz izan merkataritza-erlora nortasun juridiko berariazkorik eta, horrenbestez, inskribatu gabeko sozietatea sozietate irregular bilakatu dela.

Lehenengo, Kontuen Ganberak, 2011ko ekitaldiko bere fiskalizazio-txostenean, eta gero Udalaren idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuek gomendatu zuten Udalak sozietatea desegin zezala eta kasuko zerbitzuak emateari buruz bidezkoa zena erabaki zezala.

Toki entitateak gomendio hori ez betetzeko arrazoia izan da sozietatearen zerbitzuko langileen inguruan planteatzen dena. Udalbatzak ahalegin ugari egin izan ditu (zenbait urte eman ditu gaia aztertzen, eta bilerak egin ditu langileekin eta sindikatu eta ordezkariekin, bai eta kanpoko aholkulariekin ere) egoera horri konponbidea emateko, eta bide horretan zenbait proposamen aztertu ditu, baina horietako bakarra ere ezin izan du burutu.

Kontuen Ganberari bene-benetan eskerrak eman nahi dizkiot udal honi 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txosten honetan eman digun laguntzarengatik, Udalbatzak gaur egun dauzkan arazo garrantzitsuenetako eta urgentetako bat den honi behin betiko konponbide bat aurkitze aldera.

ZAHAR-ETXEA

San Francisco de Asís udal patronatuak eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak 2016an sinatu zuten hitzarmenak nabarmen handitzen du itundutako egoitza-tokien kopurua, aurreko hitzarmeneko kopuruekin alderatuta. Horrek modu adierazgarrian hobetu du erakunde autonomoaren 2017ko ekitaldiko egoera.

KONTRATAZIOA

Gorago aipatu den bezala, Udalak zenbait urte eman ditu elkarrizketak eta analisiak egiten Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearekin, azken horrek hartan parte hartzen duten udalerrietan bide-garbiketako zerbitzu mankomunitatea eman dezan. Azken hilabeteetan, Mankomunitateak hori aurrera eramateko behar zen azterlana amaitu du, eta badirudi hemendik gutxira lizitazioa eginen duela; horrek berekin ekarriko du zerbitzuaren adjudikazio-hartzaile suertatzen den enpresarekiko kontratua erregularizatzea.

Avenida Arte Zentroaren kudeaketari dagokionez, Ganberaren txostenean islatzen den bezala, 2015ean, zerbitzua kudeatzen zuen enpresarekin kontratua amaituta, kasuko kontratuaren lizitazioa egin zen 2015eko apirilean, baina prozedura hutsik geratu zen. Balizko lizitatzailen interes faltaren arrazoiei buruz azterketa eginda, ondorioztatu zen oztopo handienetako bat zela zerbitzuaren kudeatzailerak behin eta berriz adierazitako beharra, zinema-proiektore digital bat eskuratzekoa, zeren eta gaur egungo zinema-erakustegiek soilik formatu digitaleko filmak banatzen baitituzte, eta ezin baita eskuratu 35 mm-ko formatuko filmik (horiexek ziren zentroko aparatu analogikoan proiektu zitezkeen bakarrak). 2017ko azaroan, kasuko lizitazioa egin ondoren, kontratu bat izenpetu zen Udalari zine digitaleko proiektzio-sistema bat hornitzeko, eta behin hornidura hori burututa, berriz ere egin zen Avenida Arte Zentroaren kudeaketa-kontratuaren lizitazioa, behin deklaraturik lizitazio hori erreserbatuta zegoela izaera sozialeko entitateentzat, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikuluko ezarritako baldintzetan (irabazi-asmorik gabeko enplegu zentro bereziak eta gizarteratzerako eta laneratzeko zentroak). Gaur egun, adjudikazio-proposamena hartuko duen entitateak dokumentazioa aurkezteko fasean dago lizitazioa.

Eskerrak eman nahi dizkiot Udaleko langileei 2016ko ekitaldian egindako ahaleginarengatik, aurrez aipatutako lanera ez agertzeen ondorioz urte horretan bizi izan dugun egoera kritikoa.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiot Kontuen Ganberari txosten hau burutzeko egindako lanarengatik eta bereziki toki entitateari emandako gomendioengatik eta laguntzarengatik, hain zuzen ere udal sozietatearen arazoari behin betiko konponbidea emate aldera; izan ere, Udalbatzak gaur egun dauzkan arazo handienetako bat baita hori.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu alkateari aurkeztutako alegazioengatik, eta egindako fiskalizazioari buruzko azalpen bat direnez eta behin-behineko txostena aldarazten ez dutenez, behin betikotzat jotzen da txosten hori.

Iruñean, 2018ko martxoaren 21 ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga